




▼ HERNANI



Jabi LEON

Kalamuari buruzko informazioa da gazteek gehien eskatzen dutena.

Drogen kontsumo egokia bultzatzeko egitaraua, Gazte Txokoaren eskutik

Kristina MARTIN

HERNANI

Herriko gazteen dudei eta kezkei erantzuteko asmoz, Gazte Txokoak drogen inguruan jardungo du hilabete honetan. Hitzaldiak, erakusketak eta filmak, besteak beste, antolatu dituzte gazteek gertu dituzten drogei buruz informazio osatua eduki dezaten.

Egitaraua Gazte Txokoak prestatu du, Udaleko Drogamenpekotasunen Prebentzioko Zerbitzuaren eta Aska-gintzaren laguntzaz.

«Eguneroko bizimoduan presente daude drogak, eta gizartean eragiten dute», adierazi zuen Oihana Iruretagoienak, Gazte Txokoko hezitzaileak. Horregatik, programaren bultzatzaileen iritziz, ezinbestekoa da gazteek drogei buruzko informazio osoa edukitzea.

Horretarako, gazteei berei interes gehien sortzen dieten gaiet buruz galdetu diete. «Kalamua eta horren landaketa interesatzen zaie gehienbat», esan zuen.

Duda barik, gazteek interes handia dute drogen gaiari buruz, baina maiz izaten duten informazioa ez da zuzena. «Batzuek drogak oso txarrak direla diote, eta beste batzuek, berriz, oso onak direla. Ez da ez bata ez bestea. Drogak kontsumitu behar badituzte, baldintza egokietan kontsumi ditzaten da kontua», erantsi zuen.

Horretarako, hiru hitzaldi antolatu ditu Gazte Txokoak. Hilaren 11n, zapatuan, kalamuari buruz jardungo dute; hilaren 18an, drogak eta sexuak izan dezaketen loturaz ariko dira; eta hilaren 24an,

azkenik, drogen azterketa zelan egiten den azalduko dute. Hegoak taldeko zenbait kidek. «Gaur egun saltzen diren drogek zikinkeria ugari izaten dute, askotan droga bera baino gai kaltegarriagoak», ohar-tarazi zuen Oihana Iruretagoienak. Eta hori kontuan hartu behar dute gazteek, kontsumoaren arriskua ahali eta txikiena izan dadin.

Oihulari Clown, hilaren 29an

Horrez gain, asteartero gaierekin lotutako pelikula bat emango dute Gazte Txokoan bertan. Antzerkiari ere tarte egingo diote, hain zuzen, Oihulari Clownek drogen eta gazteen arteko harremana jorratzen duen antzerki lana estreinatuko du hilaren 29an, Biteri kultur etxean.

Informazioa osatzeko, droga bakoitzaren ezaugarriak deskribatzen dituen fitxekin erakusketa ere prestatu dute. «Egunero bi gai aukeratu eta horiei buruzko fitxa erakutsiko dugu», jakinarazi zuen hezitzaileak.